2.3.– Ezin izango da beste nomina-aurrerapenik eman harik eta lehenagotik hartutako antzeko konpromisoak kitatu arte. Era berean, sei hilabete igaro behar dira, gutxienez, nomina-aurrerapen bat kitatzen denetik beste bat eskatu ahal izan arte. Hala ere, f) idatz-zatian aipatzen diren arrazoiengatik, aurrerapen bakarra eskatu ahal izango da hamar urteko aldian. Ibilgailuak erosteko kasuan, berriz, ezin izango da arrazoi berberengatik beste aurrerapen bat eskatu harik eta aurrekoa kitatu zenetik 5 urte igaro arte.

Nomina-aurrerapenen onuradunek, beren administrazio-egoerak sei hilabetetik gora nominako banan egotera behartzen baditu, eman zaie nominaurrerapena oso-osorik itzuli beharko dute.

2.4.– Kreditu bizen gehieneko saldoa soldata-masaren % 2 izango da.

2.5.– Premia larriak.– Honako hauen ondorio direnak joko dira premia-larritzat:

a) Eskatzailearen ezkontza edo bikotekidearekiko bizikidetzara iraukorrean hastea, behar bezala egiaztatuta.

b) Eskatzailea dibortziaztea, banantzea edo bere ezkontza deuseztatzea.

c) Ezkontzidearen edota seme edo alabaren baten heriotza.

d) Seme-alaben jaiotza, haurrak adoptatzea eta etxera jasotzea.

e) Eskatzailearen, ezkontzidearen, bizilagunaren, seme-alaben edo etxera jasota dituen adingabeen gaitasun edo ebakuntza kirurgiko larria.

f) Ohiko bizilekua erostea eta ohiko bizilekua erosteko hartutako banku-kredituak amortizatzea. Horrelakoetan, itzultzeko epea 48 hilabetekoa izango da, gehienez ere.

g) Ohiko etxebizitza zaintzeko beharrezko eta ezinbesteko obrak egin behar izatea.

h) Lantokia dagoen herrira bizitzera joatea.

i) Ohiko etxebizitza atontzeko altzariak erostea.

j) Ikastetxe ofizialetan ikasketak egiteko eskatzaileak, ezkontzideak, bizilagunak, seme-alabek edo bere ardurapeko pertsonak ordaintzen dituzten matrikula-gastuak ordaintzea.

k) Ibilgailua erostea. Ibilgailua lanean ere erabiltzeko erosten bada, horren beharra saileko Zerbitzu Zuzendaritzak justifikatuko du aldez aurretik, eta itzultzeko gehienezko epea 36 hilekoa izango da.

2.3.– No podrá concederse ningún nuevo adelanto de nómina mientras no se hubieran liquidados los compromisos de igual índole adquiridos con anterioridad. Asimismo, deberá transcurrir un período mínimo de seis meses entre la cancelación de un adelanto de nómina y la solicitud de concesión de otro. No obstante, las causas contempladas en el apartado f) otorgarán derecho a la concesión de un solo adelanto durante un período de diez años. Respecto al supuesto relativo a adquisición de vehículo no cabrá conceder nuevo adelanto por igual motivo hasta tanto transcurran 5 años desde la concesión del anterior.

Cualquier cambio en la situación administrativa de los beneficiarios y beneficiarias de los adelantos de nómina que motive la baja en nómina por un período superior a seis meses, requerirá el previo reintegro en su totalidad del adelanto de nómina concedido.

2.4.– El saldo máximo de créditos vivos será el equivalente al 2% de la masa salarial.

2.5.– Necesidades urgentes.– Tendrán dicha consideración las derivadas de:

a) Matrimonio de la persona solicitante, o inicio de convivencia estable en pareja acreditada mediante certificado.

b) Divorcio, separación o nulidad del matrimonio de la persona solicitante.

c) Fallecimiento del cónyuge, hijos o hijas.

d) Nacimiento de hijos o hijas, o supuestos de adopción y acogimiento.

e) Enfermedad o intervención quirúrgica grave del o de la solicitante, o de su cónyuge, compañero o compañera, hijos o hijas, o de menores que tuviera en acogimiento.

f) Adquisición de vivienda habitual, y amortización de créditos bancarios, con ocasión de adquisición de vivienda habitual. En este supuesto el plazo máximo de reintegro será de 48 mensualidades.

g) Realización de obras necesarias e imprescindibles para la conservación de la vivienda habitual.

h) Traslado de domicilio a la localidad donde se encuentre ubicado el centro de trabajo.

i) Adquisición de mobiliario para vivienda habitual.

j) Gastos de matrícula derivados de estudios en centros oficiales, por parte de la persona solicitante, su cónyuge, compañero o compañera, hijos o hijas, o personas a su cargo.

k) Adquisición de vehículo. En el supuesto de que la adquisición de vehículo sea por motivo de su utilización como herramienta de trabajo, previamente justificado por la Dirección de Servicios del Departamento, el plazo máximo de reintegro será de 36 mensualidades.

l) Premia larritzat jotzen dituen antzeko beste egoera batzuk.

2.6.– Izapideak: Nomina-aurrerapena eskatzeko epea bi hilekoa izango da, aurrerapenaren arrazoi den egintza gertatzen denetik. Hala ere, aparteko kasuetan, aurrerapenaren arrazoi den egintza gertatu aurreko hilean datatutako eskabideak ere baimendu ahal izango dira, betiere, nomina-aurrerapena eman eta bi hilabeteko epean justifikazio-agiriak aurkezteko konpromisoa hartzen bada, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik. Konpromiso hori ez betetzeak aurrerapena kentzea lekarke.

Nomina-aurrerapenatarako eskabideak Eusko Jaur-laritzako Lan Harremanen Zuzendaritzari aurkeztuko zaizkio eskatzailearen saileko zerbitzu-zuzendaritzaren bitartez. Zerbitzu-zuzendaritzak, aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzeko, eskabidean jasota utziko du eskabidea zein egunetan egin den. Gainera, zerbitzu-zuzendaritzak txosten bat emango du, alde zuzenetik, eskabideen bidez kototasunari buruz.

16. artikulua.– Borondatezko erretiroagatiko kalte-ordainak.

Borondatezko erretiroagatiko kalte-ordaina eskuratzeko eskubidea izango dute langileek, prestazio pasiboek ekarriko dien gutxitzearen konpentsazio gisa. Eskala honen arabera ezarriko da kalte-ordainaren zenbatekoa:

Adina	Hilabete-kopurua
60 urte	21 hilabete
61 urte	17 hilabete
62 urte	13 hilabete
63 urte	9 hilabete
64 urte	6 hilabete

Eskatzaileak, kalte-ordain horietarako eskubidea izateko, azken hamar (10) urteak jarduneko zerbitzuan emanak izan behar ditu edo lanpostua gordeta eduki bere administrazio-egoeran.

Aipatutako eskalaren arabera kasu bakoitzari dagokion lansari-hilabeteak zehazteko, borondatezko erretiroa gertatzen den egunean langileak duen adina hartuko da kontuan.

Kalte-ordaina osatzen duen hileko soldata bakoitza, bestalde, erretiroko dataren aurreko azkeneko urtean interesdunak benetan jaso duen urteko lansari gordinaren hamabigarren zatia baliokidea izango da.

l) Otras circunstancias de análoga naturaleza que merezcan dicha calificación.

2.6.– Tramitación: el plazo máximo para la presentación de solicitudes de adelantos de nómina será de dos meses a partir de la fecha del hecho causante. No obstante, en supuestos excepcionales, podrán ser aceptadas solicitudes fechadas durante el mes anterior a la fecha del hecho causante si van acompañadas del compromiso de presentar la acreditación documental correspondiente en el plazo de dos meses contados a partir de la concesión del adelanto de nómina salvo supuestos debidamente justificados. El incumplimiento de dicho compromiso acarrearía la cancelación inmediata del adelanto.

Las solicitudes de adelantos de nómina deberán dirigirse a la Dirección de Relaciones Laborales del Gobierno Vasco a través de la Dirección de Servicios del Departamento al que pertenezca quien lo solicite, la cual a efectos de dar cumplimiento a lo dispuesto en el párrafo anterior deberá hacer constar en las mismas la fecha de recepción. Asimismo la Dirección de Servicios deberá emitir informe previo sobre la procedencia de las solicitudes.

Artículo 16.– Indemnizaciones por jubilación voluntaria.

El personal tendrá derecho a una indemnización por jubilación voluntaria, compensatoria de la minora-ción que ello comporta en sus prestaciones pasivas, cuya cuantía se establece conforme a la siguiente escala:

Edad	N.º mensualidades
60 años	21 mensualidades
61 años	17 mensualidades
62 años	13 mensualidades
63 años	9 mensualidades
64 años	6 mensualidades

Para tener derecho a esta indemnización es necesario que la persona solicitante haya permanecido los últimos diez (10) años en servicio activo o en situación administrativa que comporte reserva de plaza.

A los efectos de determinar el número de mensualidades de retribución que, conforme a la presente escala hubiera de corresponder en cada caso, se tomará la edad del empleado o de la empleada a la fecha en que se produzca su jubilación voluntaria.

Cada una de las mensualidades integrantes, será el equivalente a la doceava parte de la retribución bruta anual realmente percibida por la persona interesada en el último año previo a la fecha de jubilación.

Interesdunak erretiroa hartzeko aukeratutako data baino hiru hilabete lehenago egin beharko du eskaera.

Borondatezko erretiroaren berri ematen duen aginduan ezarritako kalte-ordaina interesdunak bere erretiroa eta erretiroaren ondorioetarako data jasotzen dituen Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren (GSIN) ebazpena aurkeztu ondoren ordainduko da. Eskabidearekin batera, bestalde, interesdunak baliaezintasun-espediterik ez duela ziurtatzen duen GSINak egindako egiaztagiria aurkeztu beharko da.

17. artikulua.– Gizarte Funtsa.

Funts horren helburua titulu honetan azaltzen ez diren gizarte-mailako arreta-motak eta ohikoak ez diren beste zenbait gauza finantzatzea izango da. Jaurlaritzaren Kontseiluak erabakiko du funts horren zenbatekoa, sindikatuetakoa ordezkariekin negoziatu ondoren.

Batzorde tekniko batek barematuko ditu eskabideak eta laguntzak emateko proposamenak egingo ditu. Batzordea parekidea izango da eta administrazioak eta EAEko Administrazio Orokorreko Negoziazio Mahaian ordezkaritza duten sindikatuak osatuko dute. Batzorde tekniko horrek erabaki beharko du, batetik, egon daitezkeen eskabideei erantzun ahal izateko, oinarritzat hartu beharreko kalte ekonomikoaren zenbatekoa, eta, bestetik, funtsa banatu eta gero, gerakinik badago, gerakinekin zer egin.

Laguntza-funtsaren finantzaketatik kanpo geldituko dira, sorospenen artean, Gizarte Segurantzak edo aurrezaintzako beste sistema publikoren batek medikuntzako eta farmaziako sorospenen barruan betetzen dituen tratamenduak eta esku-hartzeak. Baina, biziki larriak eta lehenbailehen bete beharrekoak salbuespen izan daitezke, eta artikulua honetan aurreikusitako batzordeari dagokio horiek erabakitzea.

III. TITULUA

LANALDIA, EGUTEGIA, ORDUTEGIA ETA OPORRAK

18. artikulua.– Urteko lanaldia eta lanaldi-mota.

Akordio honen esparruan sartzen diren langileen urteko ohiko gehienezko lanaldia 1.592 ordukoa izango da, eta 19. artikuluan ezartzen diren ohiko bi lanaldi-motatan egin ahal izango da.

Hala eta guztiz ere, behar bezala egiaztatutako zerbitzu-beharrak direla eta, lanaldi jarraitua urte osoarako ezarri ahal izango zaio zenbait talderi, eta egoera horrek ez die inolako aldaketarik ekarriko lansarrietan.

La solicitud deberá ser presentada por el interesado o la interesada tres meses antes de la fecha de jubilación solicitada.

La indemnización establecida en la Orden por la que fuera declarada la jubilación voluntaria se hará efectiva previa presentación por parte de la persona interesada de la Resolución del INSS donde se declara su jubilación y la fecha de efectos. Asimismo, habrá de ser aportada junto con ésta, certificación del INSS en la que se acredite que el interesado no se halla incurso en expediente de invalidez.

Artículo 17.– Fondo Social.

Se constituirá un fondo económico que tendrá por objeto la financiación de otro tipo de atenciones sociales no contempladas en este Título, y otras causas de naturaleza excepcional. La cuantía de dicho fondo se fijará por Acuerdo de Consejo de Gobierno, previa negociación con la representación sindical.

La baremación de las solicitudes y la propuesta de concesión de ayudas se elaborará por una Comisión Técnica integrada de forma paritaria por la Administración y las organizaciones sindicales representadas en la Mesa de Negociación de la Administración General de la CAE. Asimismo le corresponderá a dicha Comisión Técnica determinar la cuantía de quebranto económico como umbral a partir del cual atender las distintas solicitudes que se formulen, y proponer el destino del remanente que, en su caso, resulte de la distribución del fondo.

De entre las atenciones que constituirán objeto de financiación a cargo del Fondo Social se excluirán cuantos tratamientos e intervenciones integren la asistencia médico-farmacéutica prestada por la Seguridad Social o algún otro sistema público de previsión, exceptuando aquellos supuestos de especial urgencia y gravedad en los que competirá su resolución a la comisión contemplada en este artículo.

TÍTULO III

JORNADA DE TRABAJO, CALENDARIO, HORARIO Y VACACIONES

Artículo 18.– Jornada de trabajo anual y tipo de jornada.

La jornada de trabajo máxima anual normalizada para el personal incluido en el ámbito de aplicación de este Acuerdo será de 1.592 horas, y podrá desarrollarse en los dos regímenes de jornada normalizada que se establecen en el artículo 19.

No obstante lo anterior, por necesidades de servicio debidamente acreditadas se podrá establecer la jornada continuada durante todo el año para determinados colectivos sin que en este supuesto se produzca efecto alguno en las retribuciones.

Ohiko ordutegi arruntaren gehieneko iraupena dela eta, istripuak eta aparteko beste kalte batzuk aurreikusteko edo konpontzeko nahiz sarri gertatzen ez diren edo premiazkoak diren gertakariei aurre egiteko sartutako gehiegizko orduak ez dira kontuan hartuko.

19. artikulua.– Eguneroko lanaldia, ordutegia eta malgutasuna.

1.– Bi lanaldi-mota izango dira eta langileek, oro har, askatasunez aukeratu ahal izango dute lanaldia, baldin eta zerbitzuaren beharrianak beteta geratzen badira. Salbuespen gisa, kasuan kasuko zerbitzu-zuzendaritzak ukatu ahal izango du, modu arrazoitu-an. Eztabaida egonez gero, Funtzio Publikoaren Sailburuordetzak ebatziko du, akordioaren jarraipeneko Batzorde Paritarioaren interpretazioa entzun ondoren.

a) Lanaldi zatitua.

Astelehenetik ostegunera egingo da goizez eta arratsalde. Bazkaltzeko etena egingo da, ordaindu gabea, gutxienez ordu-erdikoa eta gehienez 2 ordukoa. Ostiraleko lanaldia, berriz, 7 orduko lanaldi jarraituan egingo da. Udaldiak hamazazpi aste iraungo du eta, sasoi horretan, 6 ordu eta erdiko lanaldi jarraitua egingo da.

b) Lanaldi mistoa.

Astelehen, asteazken eta ostiraletan lanaldi jarraitua egingo da eta ostegunetan zatitua. Udaldian aurreko paragrafoan ezarritako lanaldia egingo da.

Lanaldi zatitua, oro har, astearte eta ostegunetan egingo da, eta jarraitua astelehen, asteazken eta ostiraletan. Arrazoi justifikaturik badago, langileek beste lanaldi-banaketa batekin egin ahal izango dute beren lanaldia, baldin eta kasuan kasuko zuzendariaren edo ordezkariaren eta zerbitzu-zuzendariaren baimen bateratua badute eta zerbitzuaren beharrianak beteta geratzen badira.

2.– Aukera urtean behin aldatu ahal izango da, eta ondorioak urtarrilaren 1ean izango ditu. Abenduaren 1a baino lehen jakinaraziko da. 2010. urterako, epea 2010eko urtarrilaren 31 arte luzatuko da. Data hori arte, 2009. urterako ezarritako ordutegia egingo da, eta dagozkion doiketak egingo dira 2010. urtean zehar.

3.– Eguneko lanaldia eta asteko lanaldia.

Lanaldi-mota bakoitza I. eranskinean 2010erako eta 2011rako ezartzen diren ordutegien eta iraupenen arabera beteko da.

Eguneko lanaldiaren ordutegia honen arabera izango da:

– Sartzeko hasierako ordua 07:45ean izango da.

No se tendrá en cuenta, a efectos de la duración máxima de la jornada ordinaria y normal, el exceso de horas trabajadas para prevenir o reparar siniestros y otros daños extraordinarios o para afrontar hechos o acontecimientos excepcionales o urgentes.

Artículo 19.– Jornada efectiva diaria, horarios y flexibilidad.

1.– El trabajo se desarrollará en dos diferentes regímenes de jornada, que con carácter general podrá elegir libremente el personal, siempre que queden cubiertas las necesidades del servicio. Con carácter excepcional, la correspondiente Dirección de Servicios podrá denegarlo motivadamente. En caso de controversia, resolverá la Viceconsejería de Función Pública, oída la interpretación de la Comisión paritaria de seguimiento del Acuerdo.

a) Jornada partida.

Se desarrollará de lunes a jueves en jornada de mañana y de tarde. Se realizará una pausa de comida, no retribuida, de una duración mínima de media hora y una duración máxima de 2 horas. La jornada del viernes se desarrollará en jornada continua de 7 horas de duración. Durante el periodo de verano, que tendrá una duración de diecisiete semanas, se desarrollará una jornada continua de 6 horas y media de duración.

b) Jornada mixta.

Se desarrollará los lunes, miércoles y viernes en jornada continua y los martes y jueves en jornada partida. Durante el periodo de verano se desarrollará la jornada establecida en el párrafo anterior.

Con carácter general la jornada partida se desarrollará los martes y jueves, realizándose en jornada continua los lunes, miércoles y viernes. Por razones justificadas el personal podrá desarrollar su trabajo con otra distribución de jornadas, siempre que tengan la autorización conjunta del Director o Delegado correspondiente y del Director de Servicios y que queden cubiertas las necesidades del servicio.

2.– La opción podrá modificarse una vez al año, con efectos de 1 de enero. Se comunicará antes del 1 de diciembre. Para el año 2010, el plazo se ampliará hasta el 31 de enero de 2010. Hasta esta fecha se desarrollará el horario establecido para el año 2009, realizándose los correspondientes ajustes durante el año 2010.

3.– Jornada diaria y jornada semanal.

Cada tipo de jornada se desarrollará en los horarios y con las duraciones que para el año 2010 y 2011 se detallan en el anexo I.

El horario de la jornada diaria habrá de atenderse a los siguientes principios:

– El horario inicial de entrada será a las 07:45 horas.

– Lanaldi zatituan, malgutasun-tartea 07:45etik 19:00etara izango da eta lanean derrigorrez egoteko ordutegia 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 16:10era; arratsaldeko lanaldia bi ordukoa izango da gutxienez. Nolanahi ere, egun jakin bateko benetako lanaldia ezin izango da bederatzi ordu eta erditik gorakoa.

– Ostiraletako lanaldi jarraituan, lanaldi mistoko astelehen eta asteazkenetan eta udako lanaldian, sartzeko malgutasun-tartea 07:45etik 08:30era izango da eta irteteko 14:15etik aurrera behin asteko ordutegia edota dagokion eguneko lanaldia bete ondoren.

Eguneko lanaldia bete den jakiteko, asteko zenbaketa hartuko da kontuan.

4.– Norberaren gauzak egiteko baimen bat ezarzen da.

Baimena urteko lanalditik kendu ahal izango da, urteko lanaldia hainbat ordu eta minutu murriztuz, eta hori bi fasetan egingo da. Hori dela eta, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera, urteko lanaldia 22 ordu eta 30 minutu murriztuko da. 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, berriz, 45 ordu murriztuko da urteko lanaldia.

Norberaren gauzetarako egun horiek egun osotan hartu ahal izango dira, edo, bestela, gutxienez 2 orduko alditan, arratsalde (gehienez ere 12 arratsaldetan).

Baimen hau hartzeko baldintzak I. eranskinean azaltzen dira, zehazki.

Baimen honek, honako akordio honetan ezartzen den bi faseko aitopen-baldintzetan eta honako akordio honen I. eranskinean aipatzen diren baimena hartzeko baldintzetan, oso-osorik xurgatzen eta kontsentsatzen du Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren 48.1.k) artikuluan ezartzen den norberaren gauzetarako baimena.

4.– Tokian tokiko jaiegunen eta oporraldien araber, 1.592 orduko urteko lanaldia bete arte soberan dauden orduak egun libretan hartuko dira edo, bestela, arratsalde libretan. Arratsaldeak libre hartuz gero, gutxienez bi ordu hartu beharko dira, eta guztira hamabi arratsalde hartu ahal izango dira, gehienez ere.

Ordu libre guztien urteko zenbaketa eta ordu horiek nola hartu lan-egutegian zehaztuko da.

5.– Legezko zaintzari lotutako lanaldi-murrizketak emango dira ikasketak edo hautapenezko karguei dagozkien zereginak egiteagatik edo norberaren borondatez, betiere, 44., 50. eta 55.1 eta 3 artikuluetan aipatutako kasuetan eta ezarritako baldintzetan. La-

– En la jornada partida, la franja de flexibilidad será de las 07:45 a las 19:00 horas y el horario de presencia obligatoria: entre las 09:00 y las 13:00 y entre las 15:00 y las 16:10, teniendo la jornada de tarde una duración mínima de dos horas. En cualquier caso, la jornada máxima en un día determinado no podrá sobrepasar las nueve horas y media de presencia efectiva.

– En la jornada continua de los viernes, de los lunes y miércoles de la jornada mixta y de la jornada de verano, la franja de flexibilidad de entrada será de las 07:45 a las 08:30 horas y la flexibilidad de salida, a partir de las 14:15 horas, una vez cumplimentado el horario semanal, o bien una vez completada la jornada diaria correspondiente.

El cumplimiento de la jornada diaria se evaluará en cómputo semanal.

4.– Se reconoce un permiso por asuntos particulares.

El permiso será deducible de la jornada anual, mediante una disminución efectiva de la jornada anual, que se efectuará en dos fases. Con efectos de 1 de enero de 2010, se producirá una disminución efectiva de la jornada anual, que se cuantifica en 22 horas y 30 minutos. A partir del 1 de enero del 2011, se realizará una disminución efectiva de 45 horas de la jornada anual.

Los días de asuntos particulares podrán disfrutarse en días completos o fraccionarse en periodos mínimos de 2 horas en horario de tarde, con el límite de 12 tardes.

La concreción de las condiciones de disfrute del permiso es la que se establece en el anexo I.

Este permiso, con las condiciones de reconocimiento en dos fases que se establecen en el presente Acuerdo y en las condiciones de disfrute que se señalan en el anexo I, absorbe y compensa íntegramente el permiso por asuntos particulares, establecido en el artículo 48.1.k) del Estatuto Básico del Empleado Público.

4.– En función de la distribución de los días festivos locales y de los períodos vacacionales disfrutados, el número de horas sobrantes hasta el cumplimiento de la jornada anual de 1.592 horas se disfrutará en forma de días libres completos y en su caso, de tardes libres. La duración mínima del disfrute de las tardes libres será de dos horas, y el número máximo de tardes libres será de doce.

Los cómputos anuales del total de horas libres, así como la disposición de las mismas, se regularán en el Calendario laboral.

5.– Se establecen reducciones de jornada por guarda legal, por funciones derivadas de cargo electivo, por estudios y voluntarias, para los supuestos de hecho y con los requisitos establecidos en los artículos 44, 50 y 55.1 y 3, respectivamente. Los porcenta-

naldiaren murrizketaren portzentajeak zortziren bat, bosten bat, heren bat eta erdia izango dira.

6.– Lanera ez etortzea, garaiz ez etortzea edo lanetik irtetea edota lan-egutegiko edozein arau ez betetzea dagokion saileko langileen arduradunari jakinaraziko zaio berehala, eta egiaztatu egin beharko da ahal den guztietan.

Zerbitzu-zuzendaritzek lanaldiak eta ordutegiak betetzen diren ikusiko dute eta horren jarraipena egingo dute, sailburuordetza, idazkaritza eta zuzendaritza guztien lankidetzarekin. Ez-betetzeak eta arauhausteak zuzentzeko neurriak proposatuko dituzte.

7.– 2010eko abenduan, lanaldi-ereduen erabilerari buruzko datuen arabera, Negoziazio Mahaiak berriro aztertuko du eredu berriak ezartzeko eta oraingoak berrikusteko aukera.

20. artikulua.– Ordutegi malgua familiako eta laneko elkarbizitzaren mesedetan.

1.– Odolkidetasuna zein ezkontza-ahaidetasuna dela eta 2. gradura arteko senideak zaindu behar dituen langileak edo, berarekin batera bizitzeagatik urrunagoko graduko senitartekoren bat zaindu behar duen langileak, dela mugitzeko arazoak izateagatik, dela osasun-txostenaren bitartez egiaztatutako gaixotasun larria eta jarraitua jasateagatik, gehienez bi ordu gehiagoko malgutasuna izan dezake lanera sartzeko eta lanetik ateratzeko, jateko hutsarteak barne. Malgutasun horretaz baliatuz erabilitako denbora hileroko erreperatu beharko da, egunero ordu eta laurden, gehien jota, salbu eta zerbitzua hobetu beharrez tarte handiagoa uzten bada.

2.– Ikasturtean zehar, 12 urtetik beherako seme-alabak dituzten langileek 09:30era arteko malgutasuna izango dute lanera sartzekoan. Hori dela eta, lanetik ateratzeko ordua atzeratu beharko dute lanaldi osoa bete artean.

21. artikulua.– Ordutegi bereziak.

Administrazioak dituen zerbitzu-beharrizanak direla eta, zenbaitetan prestazio hori emateko ardua duen langileak lantokitik bertatik egin behar ditu prestazioak, orokorrean indarrean dauden lan baldintzetatik at.

Bada, ordutegi horiek bereziak direla esango da, ezaugarri hauetakoren bat gertatzen denean: orokorrean ezarritako ordutegi malgua ezerezean uztea, orokorrean ezarritako ordutegitik ordu-laurden baino gehiago luzatzen diren sarrera- eta irteera-ordutegiak izatea, larunbatetan edo jaiegunetan ere lanaldia ohi izatea, lanaldiaren zati bat gaeuz izatea, lanorduetatik kanpo lan egiteko gertu egon behar izatea, eta ohiko

jes de reducción de jornada serán de un octavo, un quinto, un tercio y un medio.

6.– Las ausencias, faltas de puntualidad y permanencia del personal, así como todo incumplimiento sobre normativa de calendario laboral requerirán el aviso inmediato a la persona responsable en materia de personal del Departamento correspondiente y posterior justificación acreditativa siempre que sea posible.

Las Direcciones de Servicios, con la colaboración de todas las Viceconsejerías, Secretarías y Direcciones efectuarán el seguimiento del cumplimiento de las jornadas y horarios de trabajo proponiendo la adopción de las medidas necesarias para la corrección de incumplimientos e infracciones.

7.– En el mes de diciembre de 2010, en función de los datos sobre la utilización de los diferentes modelos de jornada, se someterá a la consideración de la Mesa de Negociación, la posibilidad de implantar nuevos modelos y revisar los actuales.

Artículo 20.– Flexibilidad horaria en orden a la conciliación de la vida familiar y laboral.

1.– El personal que tenga que atender o cuidar a un o una familiar hasta 2.º grado de consanguinidad o afinidad, o aún de grado más lejano si media convivencia, por tener dificultades de movilidad o padecer una enfermedad grave continuada, acreditada por informe médico, podrá disponer de una flexibilidad horaria de hasta dos horas más, en los horarios de entrada y salida, incluyendo los de la pausa de comida. El tiempo dispuesto se recuperará en cómputo mensual, siendo el límite máximo de recuperación diaria de una hora y cuarto, salvo que por conveniencia del servicio se autorice uno superior.

2.– El personal con hijos o hijas menores de 12 años dispondrá durante el período escolar de flexibilidad de entrada hasta las 09:30 horas, debiendo retrasar la salida en el tiempo suficiente hasta completar la jornada diaria.

Artículo 21.– Horarios especiales.

Las necesidades de prestación de servicios por parte de la Administración implican que, en determinadas circunstancias, el personal responsable de dicha prestación deba efectuar su trabajo en condiciones de presencia o disponibilidad en su puesto diferentes a las que rigen con carácter general.

Se entenderán como horarios especiales aquellos en los que concurren uno o varios de los siguientes factores: supresión de la flexibilidad horaria establecida con carácter general, horarios de entrada o salida que se extiendan en más de un cuarto de hora del establecido con carácter general, presencia con carácter estable en sábados o festivos, desarrollo de parte de la jornada en horario nocturno, disponibilidad fuera de

ordutegitik aldentzen den beste edozein inguruabar denean.

Beraz, orduak konpentsatu ahal izateko printzipio orokor bat ezarriko da egoera horretan izan eta, hala ere, 78. artikuluan aurreikusitako lan-osagarriez gozatzerik ez duten langileentzat, hala lantokiko presentzia areagotu izanagatik osagarriez, nola lanaldia luzatu izanagatik osagarriez.

Ordutegi bereziaz baliatzeko, ordutegi horretaz baliatzeko asmoa adierazten dutenek izango dute lehenetasuna. Haien arteko adostasunik lortzen ez bada, ordea, aldi batean batek eta bestean besteak, txandakatuz egingo da.

Administrazioaren arioz zerbitzu-beharrizanez hala eskatzen badute, kolektibo zehatz baten lan-ordutegia aldatu ahal izango da; baina, ukitutako kolektibo horri jakinarazi beharko zaio lan-ordutegi berria, hain zuzen ere, alderdi bien arteko adostasuna lortzeko. Adostasun batera heltzerik ez bada, auzia Batzorde Paritarioaren esku geratuko da, eta hark ebatziko du antzeko inguruabarretan aplikatutako irizpideak aintzat hartuz. Horrela ere adostasunik lortzen ez bada, auzia tartekaritza-sistemaren bidez ebatzi beharko da.

Ukitutako langileei ordutegi berria jakinarazi eta handik bi hilera adostasunik lortu ez bada, Lan Harremanen Zuzendaritzak ordutegi berria ezarri ahal izango du, eta ezarri eta handik sei hilera, Batzorde Paritarioak ordutegi hori berraztertu ahal izango du.

22. artikulua.– Homologatu gabeko langileen lanaldia.

Urteko lanaldia 18. artikuluan aipatutakoa baino murriztagoa eta ordutegia 19. artikuluan aipatutakoa ez bezalakoa duten langileei, urte osoan lanaldi jarraitua egiten badute, ez zaie egoera aldatuko, lanaldiari buruzko ezaugarri bereziekin jarraituko dute, eta 75. artikulua araberako lansaria jasoko dute. Dagokien egokitzapena lan-egutegiaren bitartez egingo da.

23. artikulua.– Egutegia.

Urteko lanaldi-banaketa lanegunetan eta jaiegunetan berbera izango da langile guztientzat, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak ezarritako lan-egutegiari jarraituz.

Urtero Administrazioak lan-egutegia sindikatueta-ko ordezkariekin negoziatuko du, eta, gero, jendarean azalduko du, akordio honen eraginpean dauden Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde guztiak horren berri izan dezaten.

Lan-egutegia egiteari begira, hauek lanik gabeko egunak izango dira:

la presencia en el puesto de trabajo, y cualquier otra circunstancia diferente al horario normalizado.

Se establece, con carácter general, un principio de compensación horaria para el personal que, estando en tales circunstancias, no tenga asignados los complementos de disponibilidad con mayor presencia o de mayor jornada contemplados en el artículo 78.

La distribución de los horarios de carácter especial entre el conjunto de personas afectadas se efectuará prioritariamente con carácter voluntario y, a falta de acuerdo con las mismas, por rotación.

Cuando las necesidades de prestación de servicios impliquen, a juicio de la Administración, la alteración del horario de trabajo para un determinado colectivo, la propuesta de nuevo horario se pondrá en conocimiento del mismo con el fin de alcanzar un acuerdo para su implantación. Caso de no alcanzarse un acuerdo, la cuestión pasará a la Comisión Paritaria, quien decidirá sobre la misma en función de los criterios aplicados en circunstancias similares. De no alcanzarse un acuerdo, la cuestión será sometida a mediación.

Si en el plazo de dos meses desde la comunicación de la propuesta de nuevo horario al personal afectado no se hubiera alcanzado un acuerdo, la Dirección de Relaciones Laborales podrá implantar un nuevo horario, que será sometido a revisión por parte de la Comisión Paritaria a los seis meses de su implantación.

Artículo 22.– Jornada del personal no homologado.

Al personal que ocupe puestos de trabajo que requieran una jornada anual menor a la señalada en el artículo 18 con un horario específico distinto al contemplado en el artículo 19 y que desarrolla el régimen de jornada continuada durante todo el año, se le respetará su situación manteniéndose la aplicación de las normas particulares aplicables en cuanto a jornada, y retribuyéndosele conforme a lo establecido en el artículo 75. A través del calendario laboral se establecerá la correspondiente adecuación.

Artículo 23.– Calendario.

La distribución de la jornada anual en días laborales y festivos será uniforme para todo el personal, de acuerdo con el calendario laboral fijado por el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales.

Anualmente por la Administración se expondrá, previa negociación con los correspondientes órganos de representación sindical, un calendario laboral para su público conocimiento en todas las dependencias de la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca, afectadas por el presente Acuerdo.

A efectos de la confección del calendario laboral tendrán la consideración de días no laborables:

- 1.– Urte osoko igandeak.
- 2.– Euskal Autonomia Erkidegoko jaiegunak.

3.– Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak ezarritako tokiko jaiak.

4.– Abenduaren 24a eta 31.

5.– Errekuperatutzat joko dira urte osoko larunbat.

Halaber, Aste Santuan eta Gabonetan baimen errekuperatuak hartu ahal izango dira. Aste Santuko eta Gabonetako txandetako egunak beste sasoi batean hartu ahal izango dira, kasuan kasuko zerbitzu-zuzendaritzak baimena ematen badu, baina, betiere jarraian bi txandatan gehienez ere.

Aste Santuko eta Gabonetako txanda horietan aldi baterako ezintasuneko egoeran edo amatasun-baimenarekin egonez gero, baimen-egunak aurrerago hartu ahal izango dira, zerbitzu-zuzendaritzekin adostuta.

Urte osoan lan egiten ez duten funtzionarioek lan egindako aldiari dagozkion baimen errekuperatuak hartuko dituzte.

Urteko lanaldiaren banaketa goian azaldutako irizpideen arabera ezarri ondoren, ezingo da aldaketarik egin, oso kasu berezietan izan ezik eta, aldez aurretik, sindikatuetakoa ordezkariekin adostu ondoren.

Jendaurreko zerbitzuetan eta hala behar duten unitateetan lanaldiaren banaketa garatu beharreko eginkizunetara egokituko da eta lan-egutegiak kontuan izango ditu ezaugarri horiek. Egokitzapen hori eskumena duen agintaritzak edo organoak egingo du sindikatuen ordezkariekin negoziatu ondoren.

24. artikulua.– Benetako lana.

Urteko lan-ordutegia benetako lanari dagokiola ulertzen da. Langilea bere lanpostuan egongo da dagokion egutegian ezartzen den lanaldi arrunta hasten denetik amaitzen den arte.

25. artikulua.– Txandakako lana.

1.– Autonomia Erkidegoko administrazioan jardueraren izaera dela-eta lan-txandatan antolatu behar diren zerbitzu, establezimendu edo bulegoetan, txandakatzearen bidez egingo dira horiek.

2.– Besterik erabakitzearen kaltetan gabe, lan-txanda bakoitza 8 ordukoa izango da.

1.– Los domingos de todo el año.

2.– Las festividades de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

3.– Las fiestas locales establecidas por el Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social.

4.– Los días 24 y 31 de diciembre.

5.– Se consideran recuperados los sábados de todo el año.

Asimismo se disfrutará de sendos permisos recuperados en Semana Santa y Navidad. Los días correspondientes a los turnos de Semana Santa y Navidad podrán disfrutarse, previa autorización de la Dirección de Servicios del Departamento al que está adscrito el personal, en fecha diferente de forma consecutiva en un máximo de 2 periodos.

La situación de IT y maternidad durante los turnos de Semana Santa y Navidad dará derecho al disfrute de los días de permiso, de acuerdo con la Dirección de Servicios correspondiente.

El personal que no preste servicio durante el año completo disfrutará de la parte proporcional que le corresponda de los permisos recuperados a lo largo del año.

Una vez fijada la distribución de la jornada anual con los criterios arriba mencionados no se modificará a no ser en caso muy excepcional y previo acuerdo con la representación del personal.

En las unidades que lo requieran y en los servicios de atención al público, la distribución de la jornada se adecuará a las funciones que desarrollen adaptando el calendario laboral a sus peculiaridades. Dicha adaptación por la autoridad y órgano competente se establecerá previa negociación con la representación sindical.

Artículo 24.– Trabajo efectivo.

La jornada normalizada anual se entiende de trabajo efectivo, por lo que el personal estará en su puesto de trabajo al inicio y hasta el final de la jornada ordinaria que se establezca en el calendario respectivo.

Artículo 25.– Trabajo a turnos.

1.– En aquellos servicios, establecimientos o dependencias de la Administración Autonómica que por la naturaleza de su actividad deban organizarse por turnos de trabajo, éstos se efectuarán mediante rotación.

2.– Sin perjuicio de acuerdo en contrario, cada turno de trabajo tendrá una duración de 8 horas.

Lan-txandak hauexek izango dira:

Goizez	06:00etatik 14:00etara
Arratsaldez	14:00etatik 22:00etara
Gauetz	22:00etatik 06:00etara

26. artikulua.– Lanaldi bakoitzaren arteko etenaldia.

Lanaren antolaketa-araubidea edozein dela ere, lanegun arrunta amaitzen denetik hurrengo hasten den arte gutxienez 12 orduko tartea egongo da.

27. artikulua.– Gaueko lana.

1.– Gaueko lanaldia edo txanda gaueko hamarretatik (22:00) goizeko seietara (06:00) bitartekoa izango da.

2.– Gauean sartutako orduak kasu bakoitzean zehazten diren lansariak izango dituzte.

28. artikulua.– Atsedenaldiak eta jaiegunak.

Akordio honen aplikazio-eremuan sartzen diren langileek gutxienez segidako bi eguneko atsedena hartzeko eskubidea izango dute astero. Eskuarki, atsedengunak larunbata eta igandea izango dira, txandaka antolatu behar diren bulego, eginkizun edo zerbitzuetan izan ezik. Horietan Administrazioako agintari eta organo eskudunak arautuko du atsedenaldiak nola antolatu, sindikatuetakoa eta langileen ordezkariekin kontsultatu ondoren.

Larunbatetan zabalik egon behar duten unitate edo zerbitzuetan, gutxienez, 09:00etatik 13:15era egingo da lan, eta jendaurreko ordutegia orain indarrean dagoen berbera izango da. Larunbatetan lan egiten duten langileei hurrengo asteko lehen hiru egunetako bat jai emango zaie, ahal dela astelehena.

Larunbatetan eskaintzen den zerbitzuaren zabal-kuntza langile boluntarioekin egingo da. Bestela, zabal-kuntza hori sindikatuen ordezkariekin negoziatu ondoren baino ez da egingo.

29. artikulua.– Igandeetan edo jaiegunetan egingako lanaren ordaina.

1.– Igandeetan edo jaiegunetan eskuarki lanean aritzen diren langileek aurreko edo ondorengo astean egun bat jai hartzeko aukera izango dute, baina ordu horiek ez dira sartutako ordutzat joko. Eragin horietarako, bezperako 22:00etatik igandeko edo jaieguneko 22:00etara doan tartea jotzen da jaieguntzat.

Los turnos de trabajo serán:

Mañana	06:00 horas a 14:00 horas
Tarde	14:00 horas a 22:00 horas
Noche	22:00 horas a 06:00 horas

Artículo 26.– Pausa entre cada jornada.

Cualquiera que sea el régimen de organización del trabajo, entre el final de una jornada ordinaria y el comienzo de la siguiente mediarán como mínimo 12 horas.

Artículo 27.– Trabajo en período nocturno.

1.– Se entenderá por trabajo en período nocturno, o en turno de noche, el efectuado entre las diez de la noche (22:00 pm) y las seis de la mañana (06:00 am).

2.– Las horas trabajadas durante el período nocturno tendrán la retribución que se especifique en cada caso.

Artículo 28.– Descansos y fiestas.

El personal incluido en el ámbito de aplicación de este Acuerdo tendrá derecho a un período mínimo de descanso semanal de dos días ininterrumpidos que, normalmente, corresponderán al sábado y domingo salvo en aquellas dependencias, actividades o servicios que deban organizarse por turnos de trabajo en cuyo caso deberá regularse por la autoridad y órgano competente de la Administración otro régimen de descanso laboral, previa consulta con los correspondientes órganos de representación sindical y del personal.

En las unidades o servicios que deban permanecer abiertas los sábados el servicio se prestará, como mínimo, de 09:00 horas a las 13:15 horas, manteniéndose el horario vigente de apertura al público. Al personal que preste servicio en sábado, se le compensará con un día de trabajo dentro de los tres primeros días de la semana siguiente, con preferencia en el lunes.

La ampliación del actual servicio de los sábados se efectuará con personal voluntario. En otro caso, la ampliación únicamente se realizará previa negociación con la representación sindical.

Artículo 29.– Compensación de trabajo en domingo o festivo.

1.– El descanso correspondiente al personal que realice habitualmente trabajos en domingo o día festivo, se trasladará a otro día de la semana anterior o posterior sin que quepa la compensación en horas libres. A estos efectos, se considerará domingo o festivo al tiempo que media entre las 22:00 horas del día de la víspera a las 22:00 horas del día domingo o festivo.

Igandean edo jaiegunean lan egitea ohikoa baldin bada, lansariei dagokien tituluan zehazten den osagarria jasotzeko eskubidea izango da.

2.- Igandez edo jaiegunez salbuespen gisa lan egin ez gero, lanordua bakoitzeko astegunez bi ordu jai hartzeko aukera izango da, baina ezingo da inolako lansari osagarriarik eskuratu.

30. artikulua.– Astegunez sobera egindako lanorduen ordaina.

Zerbitzuko arazoak direla-eta eta buruek aginduta atzeratu ezin diren lanak egiteko aparteko orduan egiten direnean, ordu horiek astegunez, larunbat errekuperatuetan eta txanda errekuperatuetan lanalditik kanpo egiten badira, sartutako ordu bakoitzeko ordu eta erdiko ordaina hartzeko eskubidea izango dute langileek, behar bezala justifikatu ondoren. Astegunez sobera egindako lanorduzat joko dira arratsaldeko bostetatik aurrera sartutakoak, betiere errekuperatu beharreko ordurik ez badu langileak. Kasu horretan, ordu bakoitzak ordu bateko ordaina izango du.

Astegunean gaueko txandan sartutako ordu bakoitzak bi orduko ordaina hartzeko eskubidea emango du.

Astero egingo da konpentsazio horren zerbaketa eta ondorengo hiruhilekoan hartu ahal izango dira tokatzen diren orduak. Langileak aukeratuko du sartutako orduak noiz hartu, Zerbitzu Zuzendaritzari, ordezkariari edo dagokion administrazio-unitateko arduradunari jakinaraziko dio eta Zerbitzu Zuzendaritzak, ordezkariak edo arduradunak, halaber, Lan Harremanen Zuzendaritzari jakinaraziko dio. Zerbitzuaren beharrak direla-eta soberan sartutako orduen ordaina hartu ezin bada, beste hiru hilabeteko epea irekiko da.

31. artikulua.– Oporrak.

1.- Lanean emandako urte oso bakoitzeko hogeita bi laneguneko opor ordainduak hartzeko eskubidea izango dute langile guztiak.

2.- Lanean urtebete osoa egiten ez dutenek, lanean hasitako edo berriz hasitako egunetik urte bereko abenduaren 31ra doan epeari proportzioz dagozkion oporrak hartuko dituzte.

3.- Oporren ordezkari ezingo da dirurik eskuratu, ez osorik ez eta zati batean ere, salbu eta urtea amaitu aurretik langilearen kontratua amaitzen bada edo eszedentzia hartzeko edo zereginak eteteko deklarazioa egiten bada eta langileak oporrak osorik edo zati batean hartzeke badago oraindik. Salbuespen da, bada, erretiroa, eta horretan ezingo da kalte-ordainik jaso dirutan.

4.- Aurreko artikuluan adierazten diren aparteko kasuetan, langileak oraindik hartzeko dituen oporrei dagokien zatia kobratzeko eskubidea izango du, urtearen barruan lan egin duen hilabete-kopurua kon-

El trabajo habitual en domingo o festivo podrá dar derecho a la percepción del complemento que se determina en el Título de Retribuciones.

2.- Cuando con carácter excepcional se trabaje en domingo o festivo, cada hora trabajada dará derecho a disfrutar de dos horas en día laborable, sin que quepa la percepción de complemento retributivo alguno.

Artículo 30.– Compensación horas en exceso en día laborable.

